

# Saskibaloia

# HIZTEGIA



KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2011

Lan honen bibliografia-erregistroa  
Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Nagusiaren katalogoa aurki daiteke:  
<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteca>

Argitaraldia:

I.a, 2011ko azaroa

Ale-kopurua:

1.500 ale

© argitaraldi honena:

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra

Argitaratzalea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Internet:

[www.euskadi.net/euskara21](http://www.euskadi.net/euskara21)

Azala:

Antton Olariaga

Inprimaketa:

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX

ISBN:

XXXXXXXXXXXXXXXX

Lege gordailua:

XXXXXXXXXX

## HITZAURREA

**H**Izkuntza EROSO eta erraz hitz egin eta erabiliko bada, baliabide eta tresna egokiak beharrezkoak dira, eta eginkizun horretan leku garrantzitsua betetzen dute hiztegiak. Hizkuntzak etengabe aldatzen dira bizirik badaude, garai eta behar berrietara egokitzeo, eta, horrenbestez, hizkuntza baten modernizazioaren eta eguneratzearen prozesua ez da inoiz amaitzen. Horregatik, hizkuntzaren altxor lexikoa etengabe elikatu behar da, hizkuntza bera normalizatzeko batetik eta erabiltzaileen beharrei erantzuteko bestetik. Horregatik, helburu horri jarraituta argitaratzen dugu eskuartean duzun hiztegi hau, zalantzarak gabe, euskararen erabilera erraztuko duena.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak, corpus-plangintzari eta euskararen kalitateari dagokienez, Hiztegi Batua amaitu eta argitaratzea, eta datozen urteotarako terminologia-lanaren plangintza egitea agindu zuen (EBPN VI.3.3.a).

Hori horrela, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) EBPNk agindutakoa gauzatzeko, hainbat ekimen jarri zuen martxan: batetik, “EUSKALTERM Euskal Terminologia Banku Publikoa” sortu zuen 2001ean; bestetik, Terminologia Batzordea eratu zuen Euskararen Aholku Batzordearen barruan.

EUSKALTERM erabilera publikoko bankua da, Eusko Jaurlaritzak bideratu eta sustatu nahi duen terminologiaren produkzioaren, ku-deaketaren eta hedapenaren muina. Banku hori metodologia eta irizpide jakin batzuen arabera eguneratu eta elikatzen da, beti ere Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planak jarraituz.

Beraz, EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa etengabe elikatzen eta zabaltzen ari gara Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza IVAPekin lankidetzan, euskal terminologiaren normalizazioari eta zabalkundeari ekin eta eusteko. Terminologia Batzordeari dagokio, bestalde, terminologia-alorrean dauden lehentasunak finkatzea, lan-proposamenak egin, terminologia-lanerako irizpideak ezartzea eta abar.

Lan horren guztiaren emaitza da eskuartean duzuen hiztegi hau. Hiztegia jorratzen duen eremuko erabiltzaileen premiak asetzeko baliagarri izatea nahi genuke, bai eta gure hizkuntzaren normalizazio eta eguneraketaren bidean urrats garrantzitsua izatea ere. Hiztegi hau eta honekin batera argitaratzen ditugun guztiak eguneroko jardunean erabiltzera animatzen zaituztegu guztiok, euskaldunok lexiko gero eta aberatsagoa izan dezagun gure eguneroko bizitzan ere.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 4a

**Lourdes Auzmendi Ayerbe**  
Hizkuntza Politikarako sailburuordea

## HIZTEGIARI BURUZKO ARGIBIDEAK

Hiztegi hau UZEI Terminologia eta Lexikografia Zentroak egin du EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa ([www.euskara.euskadi.net/euskalterm](http://www.euskara.euskadi.net/euskalterm)) eguneratzeko eta elikatzeko entitate horrek Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin (HPS) izenpetutako kontratuaren barruan. Kontratuok HPSk eta IVAPek finantzatu dituzte, bi erakunde horiek sinatutako hitzarmenen bidez.

EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa da Terminologia Batzordeak finkatutako terminologia-lana zabaltzeko ardatza. Aldi berean esan behar da Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planen barruan ezarritako lehentasunen arabera eguneratzzen dela Terminologia Banku Publikoa.

Euskararen Aholku Batzordeko Terminologia Batzordeak<sup>1</sup> euskarazko terminologia-lanerako finkatu zuen metodologiari jarraituta, hiztegi hau, lehenengo, hizkuntzalariez eta eremuko adituez osatutako batzorde teknikoak aztertu eta landu zuen, Terminologia Batzordeari behin betiko proposamena luzatzeko. Normalizazio-prozesuaren azken urratsa Terminologia Batzordeak onartzea izan da.

Beraz, hemen duzue eremu honetako terminologiaren erabiltzaileei Terminologia Batzordeak gomendatzen dien terminologia.

---

<sup>1</sup> 176/2007 DEKRETUA, urriaren 16koia, Euskararen Aholku Batzordeari buruzkoa

### **Hiztegian erabilitako ponderazio-markak:**

- (4) Termino normalizatua / gomendatua
- (3) Termino onartua (baina ez lehenetsia, beste bat gomendatzen delako)

Hiztegian erabilitako laburtzapenak:

**eu** euskara  
**es** español  
**fr** français  
**en** English

**Sin.** sinonimoa  
**Ik.** ikus

## NORMALIZAZIOA

### BATZORDE TEKNIKOA

**Xabier de La Fuente** (EITB)

**Maite Fuentes** (SHEE-IVEF)

**Jabier Agirre** (UZEI)

Koordinatzailea: **Koro Urkizu** (HPS)

### TERMINOLOGIA BATZORDEA

**Lourdes Auzmendi Ayerbe**, Hizkuntza Politikarako sailburuordea

**M<sup>a</sup> Encarnacion Echazarra Huguet**, IVAPeko zuzendari nagusia

**Ivan Igartua Ugarte**, EABko idazkaria

**Araceli Díaz de Lezana Fernández de Gamarra**, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako ordezkaria

**Maite Imaz Leunda**, IVAPeko ordezkaria

**Andoni Sagarna Izagirre**, Euskaltzaindiaren ordezkaria

**Iker Etxebeste Zubizarreta**, Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxeko (UZEIk) ordezkaria

**Xabier Alberdi Larizgoitia**, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institutuko ordezkaria

**Ibon Olaziregi Salaberria**, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Euskara Zerbitzuaren ordezkaria

**Mertxe Olaizola Maiz**, aditua

**Alberto Atxabal Rada**, aditua

**Joseba Erkizia Itoitz**, aditua

**Miel Loinaz Beristain**, aditua

**Asier Larrinaga Larrazabal**, aditua

**Alfontso Mujika Etxeberria**, aditua

## ADITUAK

**Martin Agirre.** Egin Irratia  
**Antton Anasagasti.** PAT-COP Durango  
**Bego Antxutegi.** HAEV/IVAP  
**Iñaki Elortza.** Euskadi Irratia  
**Enekoitz Esnaola.** Euskaldunon Egunkaria  
**Iñaki Friera.** SHEE/IVEF  
**Xabier de la Fuente.** ETB  
**Josu Larreategi.** Taugrés Baskonia  
**Josean Querejeta.** Taugrés Baskonia  
**Luis Querejeta.** Taugrés Baskonia

## **EREMU - ZUHAITZA**

---

- 1. Instalazioak: jokalekua; materiala**
- 2. Pertsonala: kirolariak; pertsonal ofiziala; pertsonal teknikoa eta laguntzailea**
- 3. Ekipamendua**
- 4. Partida: partidaren martxa; taktikak eta joko-ekintzak; arbitrajea**
- 5. Organizazioa**
- 6. Orokorra**

## AURKIBIDEA

---

<b>Bokabularioa sailka . . . . .</b>	11
1. Instalazioak: jokalekua; materiala . . . . .	12
2. Pertsonala: kirolariak; pertsonal ofiziala; pertsonal teknikoa eta laguntzailea . . . . .	17
3. Ekipamendua . . . . .	23
4. Partida: partidaren martxa; taktikak eta joko-ekintzak; arbitrajea . . . . .	24
5. Organizazioa . . . . .	61
6. Orokorra . . . . .	62
<b>Euskarazko aurkibidea . . . . .</b>	63
<b>Gaztelaniazko aurkibidea . . . . .</b>	73
<b>Frantsezko aurkibidea . . . . .</b>	83
<b>Ingelesezko aurkibidea . . . . .</b>	91
<b>Erreferentzia bibliografikoak. . . . .</b>	99

# **BOKABULARIOA SAILKA**

## I. INSTALAZIOAK: JOKALEKUA; MATERIALA

1

### 24 segundoko erloju (4)

Sin. 24 segundoko tresna (4)

Atzeraka kontatzeko sistema bat eta seinale akustiko bat izaten duen tresna, mahaiko laguntzaileak 24 segundoko tarteak kontatzeko eta adierazteko erabiltzen duena.

**es** marcador de 24 segundos;  
dispositivo de 24 segundos

**fr** appareil des 24 secondes

**en** 24-second device

### 24 segundoko tresna

Ik. 24 segundoko erloju

### 3 segundoko eremu

Ik. eremu mugatu

### 6,75 m-ko marra

Ik. hiru puntuko marra

2

### albo (4)

Saskibaloiko kantxa edo jokaleku angeluzarenaren bi alde luzeetako marren ingurua.

**es** banda

**fr** aile

**en** wing

3

### alboko marra (4)

Hondoko marrekin batera jokalekua mugatzen duten bi marrak, laukizuzenaren zabalera ematen dutenak.

**es** Línea de banda; línea lateral

**fr** ligne de touche; ligne latérale

**en** sideline

4

### aulki (4)

Jokalekutik kanpora eta idazkarien mahaieren albo banatan egoten diren eserlekuetako bakoitzak; partida jokatzen den bitartean entrenatzalea, bigarren entrenatzalea, ordezko jokalariak eta gehienez ere beste bost laguntzaile esertzen dira aulki horietan.

**es** banquillo

**fr** banc

**en** bench

5

### baloi (4)

Airez puztutako ganbera batek eta gomazko estalki batek osatzen duten gorputz esferikoa, saskibaloian aritzeko erabilia. Kategorien arabera, hiru baloi-mota bereizten dira: 7. zk., 75-76 cm-ko zirkunferentzia eta 567-624 g bitarteko pisua dituena, ertaina edo 6. zk. duena, 72-73 cm-ko zirkunferentzia eta 510-567 g bitarteko pisuarekin, eta minibasket-ekoia edo 5. zk. duena, 69-70 cm eta 470-510 g bitarteko, hurrenez hurren.

**es** balón

**fr** balle; ballon

**en** ball

**6****bost pertsonalen adierazle (4)**

Sin. bost pertsonalen bandera (3)  
Idazkarien mahaieren gainean, bosgarren falta pertsonala egin duen taldearen aldean jartzen den seinale edo banderatxo gorria.

- es** indicador de las cinco faltas;  
banderita de cinco personales;  
banderita de mesa  
**fr** plaquette pour la cinquième  
faute personnelle  
**en** five personal foul marker

**bost pertsonalen bandera**

Ik. bost pertsonalen adierazle

**7****erdiko marra (4)**

Jokalekuaren hondoko bi marretatik distantzia berdinera eta haienkiko paralelo dagoen marra, jokaleku bi zati berdinan zatitzen duena eta alboko marretatik kanpora 15 cm ateratzen dena.

- es** línea central  
**fr** ligne de centre; ligne médiane  
**en** centre line; division line;  
midcourt line

**8****erdiko marraren luzapen (4)**

Alboko bi lerroetatik kanpora ateratzen diren erdiko marraren 15 centimetroko bi zatiako bakoitzak; arbitroak erdiko marraz atzerako faltak seinalatzeko erabiltzen da.

- es** prolongación de la línea central  
**fr** ligne médiane prolongée  
**en** extended centre line

**9****erdiko zirkulu (4)**

Jokalekuaren erdi-erdian kokatua da-goen zirkuluua. Bertan egiten da hasiera-ko sakea edo jokalarien arteko jauzia.

- es** círculo central  
**fr** cercle central  
**en** centre circle

**10****eremu mugatu (4)**

Sin. 3 segundoko eremu (3)  
Jokalekuaren alde bakoitzean saskiaren azpian geratzen den eremu angeluzuzen edo trapezoidal, hondoko marraren, jaurtiketa libreko marraren eta bi horiek lotuz egiten diren beste bi marraren tartean mugatuta geratzen dena.

Erasotzaileak ezin dira egon bertan hiru segundo baino gehiago jarraian.

- es** área restringida; zona de 3 segundos; zona restringida  
**fr** zone des 3 secondes; zone restrictive  
**en** restricted area; 3-second area;  
3-second lane

**11****falta-taula (4)**

Idazkariak edo bere laguntzaileak jokalari batek egindako falta zenbatgarrena den jendeari erakusteko erabiltzen duen oholtxo kirtenduna.

- es** plaqeta; tablilla  
**fr** plaquette  
**en** marker; wand

12

**hiru puntuko marra (4)**

Sin. 6,75 m-ko marra (3)

Zentroa alde bakoitzeko hondoko marraren erdian jarritz 6,75 m-ko erradioarekin egiten diren bi marra erdizirkularrak.

**es** línea de tres puntos; línea de 6,75 m

**fr** ligne des trois points

**en** three-points line

13

**hondoko marra (4)**

Alboko marrekin batera jokaleku mugatzen duten bi marretako bakoitzak laukizuzenaren luzera ematen du, eta bi saskietako bat izaten du.

**es** línea de fondo

**fr** ligne de fond

**en** base line; end line

14

**idazkarien mahai (4)**

Sin. ohar-hartzileen mahai (3)

Jokalekuaren erdi-parean eta kantxako marretatik kanpora egoten den mahai; ohar-hartzaila eta, zenbait lehiaketa-tan, komisario tekniko bat jartzeko izaten da.

**es** mesa de anotadores; mesa de auxiliares

**fr** table de marque; table des officiels mineurs

**en** minor official's table; score table; scorer's table

15

**jaurtiketa libreko korridore (4)**

Eremu mugatua eta horri erantsitako zirkulu-erdi bat (1,80 m-ko erradioa eta zentroa jaurtiketa libreko marraren erdian dituena) hartzen duena.

**es** bombilla; botella; pasillo de tiro libre

**fr** bouteille; couloir de lancer franc

**en** free-throw lane; key; key-hole

16

**jaurtiketa libreko marra (4)**

Jokalekuaren alde bakoitzean hondoko marratik 5,80 m-ra eta erdian zentratuta dagoen marra, hondoarekiko paraleloa, 3,6 m luzekoa eta jaurtiketa libreak egiteko non jarri behar den markatzen duena.

**es** línea de tiros libres

**fr** ligne de lancer franc

**en** charity line; charity stripe line; free-shot line; foul line; free-throw line

17

**jokaleku (4)**

Sin. kantxa (4)

Saskibaloian jokatzeko eremu errektangularra, gogorra, zementu, parket edo material sintetikozkoa. 24-28 m luze eta 13-15 m zabala da. FIBAk antolatutako lehiaketa ofizialean, ordea, jokaleku 28 x 15 m-koia izaten da.

**es** cancha; pista de juego; terreno de juego

**fr** terrain de jeu

**en** field of play; court; playing court

**kantxa**

Ik. jokaleku

18

**kronometro (4)**

Zehaztasun handiko erlojua, kronometrataileak jokoaren zati edo denborak, hutsartea, atsedenaldiak, etab. kontrolatzeko erabiltzen duena.

- es** cronómetro  
**fr** chronomètre  
**en** stopwatch

19

**markagailu (4)**

Partidaren inguruko informazioa emateko egoten den pantaila moduko tresna ia beti elektronikoa: joko-denbora, puntuak, jokalarien izenak, bakoitza egindako faltak eta beste hainbat gauza azaltzeko erabiltzen da.

- es** marcador  
**fr** tableau  
**en** scoreboard

20

**mugako marra (4)**

Hondoko eta alboko marretako bakotza, hau da, jokalekuaren eremua itxi eta mugatzen duten lau marretako bakoitza.

- es** línea de demarcación  
**fr** ligne de délimitation; ligne de limite; ligne délimitant le terrain  
**en** boundary line; demarcation line

**ohar-hartzaleen mahai**

Ik. idazkarien mahai

21

**sare (4)**

Saskian, uztaitik zintzilik jartzen den soka zurizko multzo txirikordatua, 40 cm luzekoa eta goiko ahotik behetik baino zabalagoa dena, eta saskian sartutako baloi gerarazteko balio duena.

- es** red  
**fr** filet  
**en** cord; net

22

**saski (4)**

Uztaia et sareak osatutako multzoa.

- es** canasta; cesto  
**fr** panier  
**en** basket

23

**taula (4)**

Jokalekuaren hondoko mutur bakotzean, saskiaren atzetik eta hari eutsiz jartzen den erreboteko eremu laukizuzena. Araudiaren arabera, material gogor eta, ahal dela, gardenez egina egon behar du, eta, kategorien arabera, neurri hauek izan behar ditu: 1,80 x 1,05 m saskibaloian, eta 1,20 x 0,90 m minibasket-ean

- es** tablero  
**fr** panneau  
**en** backboard; board

24

**taula-euskarri (4)**

Taulari eusteko balio duen egitura zurruna; hondoko marratik kanpora aterata egon behar du, metro bat guxienez, eta erraz ikusteko moduko kolorez pintatua; gainetik material bigunekin estalia egoten da.

- es** soporte del tablero  
**fr** support de panneau  
**en** backboard support

25

**uztai (4)**

Burdinazko pieza zirkularra, barnetik 45 cm-ko diametroa duena, normalean kalabaza-kolorez pintatua, 3,05 m-ko altueran kokatua (2,90 m minibasketean). Sarea bertatik zintzilik egoten da, eta, saskiratzea lortzeko, baloiak uztaiaren barrutik sartu behar du.

- es** aro  
**fr** anneau  
**en** ring

26

**zirkulu (4)**

Jokalekuau marraztutako 1,80 m erradioko hiru zirkunferentzietao bakotza: erdi-erdian bat eta albo banatan, talde bakoitzaren jaurtiketa libreko korridorean, beste bana.

**es**      círculo

**fr**      cercle

**en**      circle

27

**zona neutral (4)**

Jaurtiketa libreko korridorearen bi aldeetara geratzen diren tarte mugatuak, jaurtiketa libre bat egin behar denean beste jokalariak jartzeko lekua izaten direnak.

**es**      zona neutral

**fr**      zone neutre

**en**      neutral zone

## 2. PERTSONALA: KIROLARIAK; PERTSONAL OFIZIALA; PERTSONAL TEKNIKOA ETA LAGUNTZAILEA

**28**

### **24 segundoko tresnaren arduradun (4)**

24 segundoko erlojuaz arduratzen den mahaiko laguntzailea, hogeita lau segundoen arau hori aplikatzen laguntzen duena.

**es** operador de los 24 segundos  
**fr** opérateur de l'appareil des 24 secondes; opérateur des 24 secondes  
**en** 24-second clock operator

**29**

### **arbitro (4)**

Sin. epaile (4)

Partida bat zuzendu, joko-arauak interpretatu, eta arauak hausten dituzten jokalari, teknikari eta laguntzaileak zigortzeaz arduratzen den pertsona.

**es** árbitro  
**fr** arbitre  
**en** official

**30**

### **arbitro laguntzaile (4)**

Arbitro nagusiari jokoaren gorabeherak zuzentzen laguntzen dion arbitroa; laguntza hori ez dio ematen arautegiak arbitro nagusiari egozten dizkion zeregin teknikoetan.

**es** árbitro auxiliar  
**fr** arbitre-adjoint; aide arbitre  
**en** umpire

**31**

### **arbitro nagusi (4)**

Jokoaren zuzendaritzan aginterik handiena duen arbitroa. Bere egitekoak dira materiala egiaztatu eta onartzea, erloju ofiziala aukeratzea eta partidaren akta onartzea.

**es** árbitro principal

**fr** premier arbitre; arbitre

**en** referee

**32**

### **arbitro-talde (4)**

Arbitro nagusiak, arbitro laguntzaileak eta mahaiko laguntzaileek, hau da, jokoaren arauak interpretatu eta aplikatzearaz arduratzen direnek osatzen duten multzoa.

**es** equipo arbitral  
**fr** équipe arbitrale  
**en** refereeing corps

**33**

### **aurkari (4)**

Talde baten kontra ari den beste taldea edo talde horretako jokalaria.

**es** adversario; contrario; oponente  
**fr** adversaire  
**en** opponent

**base**

Ik. joko-antolatzaile

**34**

### **bigarren entrenatzaile (4)**

Sin. entrenatzaile laguntzaile (4)

Entrenatzaileari entrenamenduetan eta partidetan laguntzen dion kirol-teknikaria, behar denean hora ordeztu ere egin dezakeena.

**es** entrenador ayudante; segundo entrenador  
**fr** entraîneur adjoint  
**en** assistant coach

35

**blokeatzaile (4)**

Blokeo bat egiten duen jokalaria.

**es** bloqueador

**fr** bloqueur

**en** blocker

**bosteko titular**

Ik. hasierako talde

36

**defendatzaile (4)**

Baloia ez duen taldeko jokalaria.

**es** defensor; defensa; jugador defensivo

**fr** défenseur; joueur défenseur

**en** defender; defensive player

37

**dribinlari (4)**

Driblinak egiten dituen jokalaria.

**es** driblador

**fr** dribleur

**en** dribbler

38

**entrenatzaile (4)**

Entrenamenduak planifikatu eta zuzteneaz gain, partidan zehar taldearen zuzendaritzaz arduratzan den kirol-teknikaria.

**es** entrenador

**fr** entraîneur

**en** coach

**entrenatzaile laguntzaile**

Ik. bigarren entrenatzaile

**epaile**

Ik. arbitro

39

**erasotzaile (4)**

Sin. jokalari erasotzaile (4)

Baloiaaren kontrola duen taldeko jokalaria. Partidan zehar, edozein jokalari etengabe pasatzen da erasotzaile izatetik defendatzaile izatera eta alderantziz.

**es** atacante; jugador atacante; jugador ofensivo

**fr** attaquant; joueur attaquant

**en** attacker; offensive player

40

**errebote-hartzaile (4)**

Erreboteak hartzen ona izateagatik nabarmentzen den jokalaria.

**es** reboteador

**fr** rebondeur; récupérateur

**en** rebound man; rebounder

41

**eskolta (4)**

Jokoak markatutako premien arabera, hegalekoaren edota basearen funtziokoak konbinatzen dituen jokalaria; bi postu horietan aritzeko adinako gaitasuna eta ezaugariak ditu. Eskoltari «2» zenbakia dagokio.

**es** escolta

**fr** arrière

**en** shooting guard

42

**hartzaile (4)**

Pase bat egiten denean baloia hartzen duen jokalaria.

**es** receptor

**fr** réceptionnaire

**en** receiver

43

**hasierako talde (4)**

Sin. bosteko titular (3)

Partida bati hasiera emateko talde bakoi-tzak izendatutako bost jokalarien multzoa.

**es** formación inicial; quinteto inicial; cinco inicial de salida

**fr** formation initiale

**en** five; quintet

**hegal**

Ik. hegaleko

**hegal-pibot**

Ik. hegaleko pibot

**44****hegaleko (4)**

Sin. hegal (4)

Erasoko fasean jokalekuaren alboko edo saihetseko eremuetan kokatu ohi den jokalaria. Perimetroan zehar mugitu ohi da, ondoren jaurtiketa egiteko. Pibota baino txikiagoa izaten da. Normalean hegalekoari «3» zenbakia dagokio.

**es** ala; alero**fr** ailier; avant**en** forward; winger; wing**45****hegaleko pibot (4)**

Sin. hegal-pibot (4)

Hegalekoaren eta pibotaren funtziok konbinatzen dituen jokalaria, jokoaren premien arabera eta bere altuera apro-betxatuz zenbait unetan pibotei lagunten baitie, erreboteko lanean batik bat. Hiru-bost metroko distantziatik jaurtitzaile egokia izaten da. Normalean hegal-pibotari «4» zenbakia dagokio.

**es** ala-pívot; alero-pívot**fr** pivot en avant; ailier fort**en** forward pivot**46****idazkari (4)**

Sin. ohar-hartzaile (3)

Mahaiko laguntzailea, partidaren akta betetzeko eginkizuna duena.

**es** anotador**fr** marqueur**en** scorekeeper; scorer**7****idazkariaren laguntzaile (4)**

Mahaiko laguntzailea; zenbait partida-tan egoten da idazkarari laguntza eskainiz, eta berak erakusten du jen-dauurrean jokalari bakotzak partida jokatu bitartean egindako falta pertso-nalen ordena adierazten duen plaka (falta-taula, alegia).

**es** ayudante de anotador**fr** aide marqueur**en** assistant scorer**48****jaurtitzaitzaile (4)**

Saskira jaurtiketak egiten dituen jokala-ria.

**es** lanzador; tirador**fr** tireur**en** shooter**49****jokalari blokeatu (4)**

Aurkariaren blokeoa jasotzen duen defendatzzailea.

**es** jugador bloqueado**jokalari erasotzaile**

Ik. erasotzaile

**50****jokalari-zerrenda (4)**

Partidaren aktan jasota geratzen den jokalari-multzoa, hamar jokalari talde bakoitzeko: bost hasierako taldea osa-tzen dutenak eta beste bost ordezko, entrenatzialeak nahi duenean aldatzeko geratzen direnak.

**es** alineación**fr** formation; alignement**en** line-up

51

**joko-antolatzaile (4)**

Sin. base (3)

Taldearen jokoa, erasoan batez ere, zuzendu eta antolatzen duen jokalaria. Pasatzale eta driblinlari egokia izaten da, normalean bere taldekoak baino txikiagoa, eta bera izaten da kontraersoa eramatzen duena. Normalean baseari «1» zenbakia dagokio.

**es** base

**fr** constructeur de jeu; meneur de jeu; poste

**en** playmaker

52

**kapitain (4)**

Taldea ordezkatzen duen jokalaria, arbitrokin hitz egiteko ardura duena eta partida hasi aurretik epaileekin eta beste taldeko kapitainarekin zozketan parte hartzen duena.

**es** capitán

**fr** capitaine

**en** captain

53

**komisario (4)**

Nazioarteko lehiaketetan presente egon ohi den arbitro-taldeko partaidea. Bere eginkizun nagusia mahaiko laguntzaileen lana gainbegiratzea eta arbitroei laguntza izaten da, partida arazorik gabe joka dadin.

**es** comisario

**fr** commissaire

**en** commissioner

54

**kronometratzaile (4)**

Mahaiko laguntzailea; jokoaren eta baita ere luzapenaren zati edo parte bakoitzaren hasiera eta bukaera adierazteaz, eta joko-denboraldiak eta jokoetenak erregistratzeaz arduratzen da.

**es** cronometrador

**fr** chronométreur

**en** timekeeper; timer

55

**kuku (4)**

Erasoko posizioan jarraitzen duen jokalaria, defentsako lanak egitera jaisten ez dena.

**es** palomero

56

**lehortzaile (4)**

Pista bustitzen denean, jokalarien izerdiarekin batez ere, lurra lehortzen duen pertsona.

**es** secador del piso; secador de la cancha

**fr** essuyeur

**en** floor wiperman

57

**mahaiko ofizial (4)**

Idazkarien mahaian arbitroei laguntze-ko egoten diren arbitro-taldeko laguntzaileetako bakoitza: idazkaria, idazkariaren laguntzailea, 24 segundoko tresnaren operadorea, eta kronometratzailea.

**es** auxiliar de mesa; oficial de mesa

**fr** officiel de la table; officiel de la table de marque

**en** table official

58

**masaje-emaile (4)**

Sin. masajista (3)

Jokalariei kolpeak sendatu edo musku-luak puntuau jartzen laguntzen dien osasun-arloko profesionala.

**es** masajista

**fr** masseur

**en** masseur

**masajista**

Ik. masaje-emaile

**ohar-hartziale**

Ik. idazkari

**59****ordezko jokalari (4)**

Partidan zehar hasierako bostekoan atera den jokalari baten ordez jokatzen ateratzeko izendatua eta aulkian eserita dagoen jokalaria.

- es** suplente; reserva  
**fr** remplaçant  
**en** substitute

**60****pasatzaile (4)**

Jokaldi batean baloia beste bati pasatzen dion jokalaria.

- es** pasador  
**fr** passeur  
**en** passer

**61****pivot (4)**

Uztaitik gertu edo 3 segundoko zonatik hurbil kokatzen den jokalaria; saskiari bizkarra emanda egin ohi du, normalean, bere lana.

- es** pivot  
**fr** centre; piquet; pivot  
**en** centre; pivot; pivotman; post man; post

**saskibaloiko jokalari**

Ik. saskibaloilari

**62****saskibaloilari (4)**

Sin. saskibaloiko jokalari (4)  
 Saskibaloian aritzen den jokalaria.

- es** baloncestista; jugador de baloncesto  
**fr** basketteur; joueur de basket  
**en** basketball player; basketballer

**63****saskiratzaile (4)**

Baloia saskian sartzen dituen jokalaria.

- es** anotador; encuestador  
**fr** buteur; marqueur; réalisateur  
**en** scorer

**64****talde (4)**

Kirol-erakunde edo klub beraren defentsan aritzen diren jokalarien multzoa. Nahiz eta taldea osatzen dutenak gehiago izan, partidaren hasieran bost jokalari bakarrik kantxaratzentzira, eta beste bost ordezko kanpoan geratzentzira, entrenatzaila aginduz gero jokalari titularren bat ordezteko prest.

- es** equipo  
**fr** équipe  
**en** team

**65****taldekide (4)**

Jokalari batekin talde berean jokatzen duten beste lagun guztiak.

- es** compañero de equipo  
**fr** coéquipier  
**en** teammate

**66****tarteko zutoin (4)**

Uztaien eta jaurtiketa libreko marraren tartean jokatzen aritzen den pibota.

- es** poste medio  
**fr** pivot en position médiane  
**en** middle post

**67****titular (4)**

Partida-hasierako jokalarien zerrendan sartzen den jokalaria.

- es** titular  
**fr** titulaire  
**en** first team player

68

**trailer (4)**

Kontraerasoan, erdiko pasabidetik zona moztuz aritzen den jokalaria.  
Normalean taldeko 4. eta 5. jokalariak izaten dira.

**es** trailer

**fr** trailer

**en** trailer

69

**zutoin altu (4)**

Jaurtiketa libreko marraren inguruan jokatzen aritzen den pibota. Normalean zutoin altuari «4» zenbakia dagokio.

**es** poste alto

**fr** pivot haut

**en** high post

70

**zutoin baxu (4)**

Uztairen azpian jokatzen aritzen den pibota. Normalean zutoin baxuari “5” zenbakia dagokio.

**es** poste bajo

**fr** pivot bas

**en** low post

### 3. EKIPAMENDUA

#### **elastiko**

Ik. kamiseta

**71**

#### **galtzamotzak (4)**

Sin. prakamotzak (4)

Belaunetik gora geratzen diren galtzak, elastikoarekin batera jokalarien jokantzia osatzen dutenak.

**es** pantalón corto

**fr** culotte

**en** shorts

**72**

#### **kamiseta (4)**

Sin. elastiko (4)

Jokalariak soinaren goiko aldean eramatzen duen jantzia, tiranteduna normalean, jokalariak identifikatzeko atzeko aldean zenbaki handia eta kasu batzuetan jokalariaren izena, eta aurrean zenbaki txikia daramana.

**es** camiseta

**fr** maillot

**en** shirt

**73**

#### **kirol-oinetako (4)**

Gomazko zola duen bota moduko oinetako arin eta takoirik gabea, saskibaloian jokatzeko egokia dena.

**es** zapatilla

**fr** basket; chaussure

**en** boot

#### **prakamotzak**

Ik. galtzamotzak

**74**

#### **txilibitu (4)**

Arbitroek jokoan egindako faltak eta bestelako gorabeherak adierazteko erabiltzen duten tresna soinu ozenduna.

**es** silbato

**fr** sifflet

**en** whistle

## 4. PARTIDA: PARTIDAREN MARTXA; TAKTIKAK ETA JOKO-EKINTZAK; ARBITRAJEA

### 2 x 1

Ik. bi baten aurka

### 75

#### 2 x 1era erakarri (4)

Sin. 2 x 1era etorrarazi (3)

Defentsako jokaldi bat, erasotzaile bat bi defendatzailerentzat gertatzeko egiten dena. Defentsa-lanean ari diren jokalariek egiten duten presioaren ondorioz, kantxako albo batean abantailan egotea lortzen dute.

**es** provocar el 2 x 1

#### 2 x 1era etorrarazi

Ik. 2 x 1era erakarri

### 2 x 2 joko

Ik. bi biren aurkako joko

### 76

#### 24 segundoen arau (4)

Jokaldi bat abiatzen denetik kontatzen hasita, erasoko taldeak 24 segundoko epea dauka gehienez ere baloia saskira jaurtitzeke.

**es** regla de los 24 segundos

**fr** règle des 24 secondes

**en** 24-second rule

### 77

#### 24 segundoen seinale (4)

24 segundoko tresnaren arduradunak 24 segundoko epe bat amaitzen denean egiten duen seinale akustikoa.

**es** señal de los 24 segundos

**fr** signal de l'appareil des 24

secondes

**en** 24-second signal

### 78

#### 3 segundoen arau (4)

Jokalari batek ezin du beste taldearen eremu mugatuaren 3 segundo baino gehiago jarraian egon, bere taldea baloi bizi baten jabe den eta erlojua martxan dagoen bitartean.

**es** regla de los 3 segundos

**fr** règle des 3 secondes

**en** 3-second rule

### 79

#### 5 segundoen arau (4)

Estu-estu markatua dagoen jokalari batek baloia bost segundo baino lehen pasatu, jaurti edo punpatu beharko du.

**es** regla de los 5 segundos

**fr** règle des 5 secondes

**en** 5-second rule

### 80

#### 8 segundoen arau (4)

Talde erasotzaileak bere atzealdean hartzen duen baloia aurrealdera 8 segundo baino lehen bidali behar du, baloia hartzen duen unetik kontatzen hasita.

**es** regla de los 8 segundos

**fr** règle des 8 secondes

**en** 8-second rule

### 81

#### abiada (4)

Jokalariak egiten duen erasoko mugimendu bizkorra da, atzeratua daukan hankaren gainean indarra hartu eta, aldi berean, beste hanka aurrera mugitu eta gorputzarekin aurrera makurtuz, bat-batean abiadura handia hartu ahal izateko.

**es** arrancada

**fr** démarrage

**en** start

82

**abiadurako bote (4)**

Inguruau defentsarik ez dagoenean jokalari batek aurrrera egiteko erabiltzen duen bote-mota: korrika, normala baino altuagoa den boteak egiten dira (gerriaren parainenokoak, gutxi gorabehera) eta baloia leun-leun bultzatzen da, diagonalean.

**es** bote en velocidad

**adierazi**

Ik. txilibitua jo

83

**ahur-pala (4)**

Sin. ahur-palazko jaurtiketa (3)  
Eskua baloiaren azpian eta hatzak hasieratik saskiranzko orientazioan daudela egindako jaurtiketa.  
Normalean besoa lutzatuta egin ohi da.  
**es** bandeja; tiro en bandeja  
**fr** lancer déposé; tir par dessous  
**en** lay-up shot

**ahur-palazko jaurtiketa**

Ik. ahur-pala

84

**albo-ikusmen (4)**

Sin. zeharkako ikusmen (4)  
Defentsan jokatzen duen jokalariari eskatzen zaion trebetasuna, alegia: defentsan ari denean, eta, bereziki, baloirik gabeko erasotzaileren bat mar-  
katzen ari denean, zuzenean berak zaindu behar duen aurkari hori kontro-  
latzeaz gainera une horretan baloia duen erasotzailea ere zaindu ahal izate-  
ko trebetasuna izatea.  
**es** visión marginal

85

**alboko sake (4)**

Alboko marratik egiten den sakea.

**es** saque de banda

**fr** remise en jeu de la ligne de touche

**en** sideline throw-in

86

**albotik atera (4)**

Sin. alboz kanpora atera (4)

Jokalari bat edo baloia alboz kanpo geratu.

**es** salir de banda

**fr** sortir du terrain

**en** go out-of-bounds

87

**alboz kanpo (4)**

Jokalari bat edo baloia jokalekuaren mugako marren gainean edo marretatik kanpora egotea.

**es** fuera de banda

**fr** hors jeu; hors du terrain

**en** out of bounds

**alboz kanpora atera**

Ik. albotik atera

88

**aldaketa (4)**

Sin. ordezpen (3)

Partida bitartean jokalari baten ordez talde bereko beste jokalari bat jartzea. Gaur egungo arautegiaren arabera, idazkarien mahaien baimena eskatu eta abisua eman ondoren bakarrik egin daiteke aldaketa.

**es** cambio; sustitución

**fr** remplacement

**en** substitution

89

**alde sendo (4)**

Bi saskiak irudizko marren bidez lotuz gero, jokalekuau baloia dagoen zona.

**es** lado fuerte

**fr** côté fort

**en** strong side

90

**aldi bateko geraldí (4)**

Bi oinak aldi berean zoruan pausatzean gertatzen den geraldia, botearen ostekoak nahiz pase bat jaso ondorengoa. Bi oinetatik edozein hartu ahal izango da biratzeko edo pibotatzeko.

**es** parada en un tiempo

91

**alley-oop (4)**

Saskirantz korrika doan jokalari bat egingako asistentzia; jauzi eginez baloia airean hartu eta zuzenean saskian goitik behera sar dezan egiten da.

**es** alley-oop

**fr** alley-oop

**en** alley-oop

92

**arau-urratze (4)**

Araudian ezarritako arauaren bat ez betetzea; era honetako hutsegiteak ez dira partidako aktan jasotzen eta baloia kendu eta beste taldeari emanez zigortzen dira.

**es** violación

**fr** violation

**en** violation

**arauz kontrako kontaktu**

Ik. arauz kontrako ukipen

93

**arauz kontrako ukipen (4)**

Sin. arauz kontrako kontaktu (3)

Zigortu beharreko kontaktu pertsonala. Falta pertsonaltzat jotzen da edo, arbitroek intentziozkotzat hartuz gero,

kirol-legearen kontrako jokaera-faltatzat. Azken kasu horretan bi jaurtiketa librerek zigortzen da, eta ondoren baloia beste taldeari ematen zaio.

**es** contacto antirreglamentario;

contacto ilegal

**fr** contact illégal

**en** illegal contact

94

**arauzko denbora (4)**

Sin. joko-denbora (3)

Partida baten iraupen arauzkoa, alegia 10na minutuko lau laurden, 15 minutuko atsedena eginez denbora-erdian, eta 2na minutuko atsedenak 1. eta 2. eta 3. eta 4. laurdenen bitarteetan. Bi taldeek berdinduta bukatzen badute luzatu egiten da partida, 5na minutuko luzapenak eta 2na minutuko atsedenak eginez berdinaketa apurtu arte.

**es** tiempo de juego

**fr** temps de jeu

**en** playing time

95

**arbitratu (4)**

Sin. epaitu (4)

Arbitroek partida zuzendu, jokoa kirolaren arautegian markatutako arauei jarraituz egiten dela kontrolatzu.

**es** arbitrar

**fr** arbitrer

**en** referee; officiate

96

**arbitroen seinale (4)**

Arbitroek keinuz edo hotsez egiten dituzten adierazpenetako bakoitzak, partidan zehar egiten diren falten edo arau-hauste, hutsarte-baimen, joko-ezen eta abarren berri emateko.

**es** señal de los árbitros

**fr** signal des officiels

**en** official's signal

97

**asistentzia (4)**

Jokalari batek baloia saskiratu aurretik, horretarako aukera egokia emanez taldekiek batek ematen dion azken pasea.

- es** asistencia; servicio
- fr** passe décisive
- en** assist

**atseden**

Ik. atsedenaldi

98

**atsedenaldi (4)**

Sin. atseden (4)

Bi taldeetako jokalariek atseden har dezaten, joko-laurdenen artean egiten den etena. Lehenengo laurdenaren eta bigarrenaren arteko atsedenaldia, hirugarrenaren eta laugarrenaren artekoa, eta luzapen bakoitzaren aurretik egiten dena, 2 minutukoak izaten dira; partida erdiko, aldiz, 15 minutukoak.

- es** descanso
- fr** pause; repos
- en** rest

99

**atzealde (4)**

Sin. defentsa-eremu (3)

Talde batentzat defentsakoa duen saskiaren atzeko hondoko marraren eta erdiko marraren tartean geratzen den jokaleku-eremua.

- es** zona de defensa
- fr** zone de défense; zone arrière
- en** back court

100

**atzealdera itzultze (4)**

Sin. erdiko marraz atzera egite (3)

Baloiaaren kontrola duen taldeak baloia bere aurrealdetik atzealdera, erdiko marra zeharkatuta, pasatzeagatik egiten duen arau-urratzea.

**es** campo atrás

- fr** retour en zone; retour en zone arrière

- en** backcourt violation; over and back

101

**atzera-pase (4)**

Atzerantz egiten den pasea.

- es** pase retrasado
- fr** passe en arrière; passe en retrait
- en** back pass; drop pass

102

**aurkaria faltaz kargarazi (4)**

Baloia daukan erasotzailea, erasoko ekintza eta jokaldien bidez, bera markatzeaz arduratzentz den defendatzailearen falta pertsonalen kopurua gehitzen saiatu.

- es** cargar al contrario de faltas

103

**aurkaria markatu (4)**

Jokalari bat, aurkaria nora mugitzen den, hari atzetik jarraitzen ibili, lagunek egiten dizkioten paseak mozten saiatuz edo hari, inola ere, baloia saskira botatzen ez utziz.

- es** marcar al adversario
- fr** marquer l'adversaire
- en** defense; guard; cover; mark

104

**aurrea hartze (4)**

Pase-lerroa ongi defendatuz, defendatzaileak erasotzaileari bidaltzen zaion baloia berak hartzeko egiten duen jokaldia. Horretarako, aldez aurretik mugimenduaren irudi mentala aurreikusi behar du defendatzaileak bere buruan.

- es** anticipación
- fr** anticipation
- en** anticipation

105

**aurrealde (4)**

Sin. eraso-eremu (3)

Talde batentzat erasokoa duen saskia-ren atzeko hondoko marraren eta erdi-ko marraren tartean geratzen den joka-leku-eremu.

**es** zona de ataque

**fr** zone avant; zone d'attaque

**en** fore court; front court

106

**aurrera egin (4)**

Sin. aurreratu (4)

Aurkako taldearen saski aldera hurbil-du, baloiarekin edo baloirik gabe.

**es** avanzar

**fr** avancer

**en** advance; drive; progress

107

**aurrera-pase (4)**

Taldekide bati baloia bera dagoen leku-a baino aurrerago bidaliz egiten den pasea.

**es** pase adelantado

**fr** passe en avant

**en** lead pass; spot pass

**aurreratu**

Ik. aurrera egin

108

**babeseko bote (4)**

Bote egiterakoan, defendatziale bat hurbil egonez gero jokalari batek har-tzen duen jarra: altuera txikiko bo-teak eginez, ia bertikalak, eta bote egiteko erabiltzen ez duen besoarekin baloia babestuz, ukondoa defendatzai-learen aldera zuzenduta.

**es** bote de protección

109

**baliogabeko saskiratze (4)**

Sin. saskiratze nulu (3)

Arbitroek txartztat ematen duten saski-ratzea.

**es** canasta nula

**fr** panier annulé

**en** disallowed basket

**baloi atxiki**

Ik. borroka

110

**baloi bizi (4)**

Joko-egoera bat, alboko sake baten edo bi aurkariren arteko jauzi baten ondo-tik jokalari batek baloia ukitzen due-nean edota jaurtiketa libre bat egiteko arbitroarengandik baloia jasotzen due-nean gertatzen dena.

**es** balón vivo

**fr** ballon vivant

**en** live ball

111

**baloi hil (4)**

Jokorako balio ez duela geratzen den baloia; hala geratzen da saskiratze baten ondoren, arbitroak falta bat edo arau-hausteren bat adierazten duenean, kronometratzaileak seinale akustikoa bat (hots bat, alegia) egiten duenean eta abarretan.

**es** balón muerto

**fr** ballon mort

**en** dead ball

112

**baloi-galtze (4)**

Jokalari bati edo talde bati arau bat hausteagatik ezartzen zaion zigorra, baloia kendu eta beste taldearen eskue-tan utzarazteria behartzen duena.

**es** pérdida de balón

**fr** perte du ballon

**en** loss of the ball; turnover

113

**baloia atera (4)**

Sin. sakea egin (3)

Sake baten bidez baloia jokoan ipini.

**es** sacar**fr** servir**en** inbound

114

**baloia berreskuratu (4)**

Talde batek baloia hartu, beste taldeari berak kendu diolako edo aurkari horrek berak galdu duelako.

**es** recuperar el balón**fr** récupérer le ballon**en** recover the ball

115

**baloia eduki (4)**

Sin. baloiaren jabe izan (3)

Jokaldi batean talde batek baloia bere eskuetan izan, hau da, eraso egiten ari den taldea izan.

**es** poseer el balón; estar en posesión del balón**fr** posséder le ballon**en** be in possession of the ball

116

**baloiaren aurkako presio (4)**

Sin. baloiatz jabetu (3)

Jokalari batek baloia bereganatu, esku bakarrarekin edo bi eskuekin.

**es** coger el balón; hacerse con el balón; agarrar el balón**fr** attraper le ballon; cueillir le ballon**en** catch the ball**baloiaren aurkako presio (4)**

Ik. baloiari eutsi

117

**baloiaren aurkako presio (4)**

Joko-egoera bat, jokalari batek baloia alboko marratik atera behar duenean gertatzen dena edo, bi jokalariren arteko jauzia egin behar dela-eta, arbitroa zirkuluaren barruan edo jaurtiketa libreak egiteko eremuaren barruan sartzen denean gertatzen dena.

**es** balón en juego**fr** ballon en jeu**en** ball in play

118

**baloiaren aurkako presio (4)**

Sin. baloiaren ongi erabili (3)

Arautegian baimenduta dauden baloi-mugimenduak trebeziaz egin.

**es** dominar el balón; manejar el balón**fr** manier le ballon**en** handle the ball**baloiaren aurkako presio (4)**

Ik. baloiari bidea moztu

**baloiaren aurkako presio (4)**

Ik. baloiaren aurkako presio (4)

119

**baloiaren aurkako presio (4)**

Defentsa-markaketa itogarria, baloia defentsa-eremutik eraso-eremura eramatzen ahalegintzen denean joko-antolatzaileari edo baloia daraman erasotzaileari egiten zaiona.

**es** presión sobre el balón

120

**baloiaren efektu (4)**

Jaurtiketaren azkeneko fasean, besoa lutzatu eta eskumutur-kolpearekin batera, hatzen kontaktuak baloiari ematen dion errortazio-mugimendua, baloiak uztai edo taula jo ondoren saskirako bidea errazago aurkitzeko balio izaten duena.

**es** efecto del balón

**fr** effet du ballon

**en** ball spin

121

**baloiaren ibilbide (4)**

Pase bat egiten denean edo saskira botatzen denean baloiak egiten duen bidea.

**es** trayectoria del balón

**fr** trajectoire du ballon

**en** trajectory of the ball

**baloiaren jabe izan**

Ik. baloia eduki

122

**baloiaren kontrol (4)**

Talde batek edo jokalari batek baloia bere esku eduki eta baloia punpatu, pasatu edo jauritzeko aukeran izatea.

**es** control del balón

**fr** contrôle du ballon

**en** ball control

123

**baloiari bidea moztu (4)**

Sin. baloia moztu (3)

Defendatzaile batek aurkari batek botatako baloiari pasatzen ez utzi, hau da, baloia hartu eta geratu, edo desbideratu.

**es** interceptar el balón

**fr** intercepter le ballon

**en** intercept the ball

124

**baloiari eutsi (4)**

Sin. baloia izoztu (3)

Jokalari batek baloia eduki, saskira jaurtitzen saiatu gabe eta jokoa mantstu eta denbora galtzeko beste asmorik gabe.

**es** retener el balón; congelar el balón

**fr** garder le ballon

**en** freeze the ball; kill the clock; run out the clock

**baloiaz jabetu**

Ik. baloia hartu

125

**baloirik gabeko joko (4)**

Erasoan ari den taldeko jokalariek baloia daraman jokalariari laguntzeko egiten duten mugimendu-jokoa: jauritzeko leku onak hartzea, mozketak egiteko eta norabide-aldaketak egiteko prestatzea, hutsuneak egitea, etab.

**es** juego del hombre sin balón

126

**banakako defentsa (4)**

Sin. buruz buruko defentsa (3)

Defendatzaile bakoitzak erasotzaile jakin bat markatzu egiten duen defentsa.

**es** defensa individual; defensa hombre a hombre

**fr** défense individuelle; défense d'homme à homme; défense homme à homme

**en** individual defence; man-to-man defence

127

**banakako defentsaren aurkako eraso (4)**

Sin. buruz buruko defentsaren kontrako eraso (3)  
Talde batek aurkako taldearen banakako defentsa gainditzeko hasten duen erasoa.

**es** ataque contra defensa individual  
**fr** attaque d'une défense individuelle  
**en** man-to-man offence; offence against man-to-man defence

128

**banakako markaketa (4)**

Sin. buruz buruko markaketa (3)  
Buruz buruko defentsa-sistemaren berezko markaketa, jokalari batek aurkari jakin bat zainduz egiten duena.

**es** marcaje hombre a hombre; marcaje individual  
**fr** marquage individuel; marquage homme à homme  
**en** individual marking; man-to-man marking

129

**barneko joko (4)**

Sin. barruko joko (4)  
Jaurtiketa libreko korridorearen barruan egiten den erasoko jokoa, batez ere piboten lanean oinarritz egiten dena.

**es** juego interior  
**fr** jeu à l'intérieur de la raquette  
**en** inside play

130

**barneraldi (4)**

Sin. sarrera (4); sartze (4)  
Aurkako taldeko defendatzaileen arte-tik bizkor pasatuz saskirantz joatea, hurbileko jaurtiketa bat egiteko.

**es** entrada; penetración  
**fr** pénétration  
**en** drive

**barruko joko**

Ik. barneko joko

131

**beisbol-pase (4)**

Pase luzea, baloia esku batekin eta buruaren gainetik bidaliz egiten dena, beisboleko jokalariek egiten dutenaren antzera.

**es** pase de béisbol  
**fr** passe de baseball  
**en** baseball pass; one-hand baseball

132

**berdindu (4)**

Berdinketa lortu, hau da, bi taldeek puntu-kopuru bera egin.

**es** empatar  
**fr** égaliser  
**en** equalize; tie

133

**berdinketa (4)**

Bi taldeek emaitza edo puntu-kopuru bera lortzea.

**es** empate  
**fr** égalité; match nul  
**en** tie

134

**berdinketa hautsi (4)**

Berdinketa bat ebatzi, hau da, talde batek besteak baino puntu gehiago izatea lortu.

**es** desempatar  
**fr** prendre l'avantage  
**en** break a tie; resolve a tie

135

**berdinketa-hauste (4)**

Talde bat bestearen aurretik jartzea.

**es** desempate

**fr** barrage

**en** tie-breaking

136

**berotze-ariketak (4)**

Saskibaloiko partida baten aurretik, edo entrenamendu-saioren hasieran, gorputza berotzeko eta muskuluak puntuari jartzeko egiten den ariketa-multzo espezifikoa.

**es** rueda de calentamiento

137

**beso jaurtitzale (4)**

Jaurtiketa bat egiterakoan baloia bultzatzen duen besoa.

**es** brazo lanzador

138

**bi aldko geraldí (4)**

Bi oinak bata bestearen atzetik zoruan pausatzean gertatzen den geraldia, botearen ostekoa nahiz pase bat jaso ondorengoa. Zorua aurrena ukitzen duen oina erabiliko da pibotatzeko.

**es** parada en dos tiempos

139

**bi baten aurka (4)**

Sin. bi baten kontra (4); 2 x 1 (4)

Abantailazko egoera taktikoa, eremu zehatz batean bi erasotzaileen aurrean defendatzale bakarra egotean sortzen dena.

**es** dos contra uno; 2 x 1

**bi baten kontra**

Ik. bi baten aurka

140

**bi biren aurkako joko (4)**

Sin. 2 x 2 joko (4)

Erasoan nahiz defentsan bi jokalarik landu eta aurrera eramatzen dituzten portaera taktiko-teknikoak (paseak, jokoak).

**es** juego dos contra dos; juego 2 x 2

**bi driplineko falta**

Ik. bikoitza

141

**bi eskuko jaurtiketa (4)**

Bi eskua erabiliz egiten den jaurtiketa.

**es** tiro a dos manos; tiro con las dos manos

**fr** lancer à deux mains; tir à deux mains

**en** two-hand shot

142

**bi eskuko pase (4)**

Bi eskuekin egiten den pasea.

**es** pase a dos manos; pase con dos manos

**fr** passe à deux mains

**en** two-hand pass

**bi hanka gaineko jaurtiketa**

Ik. jaurtiketa estatiko

143

**bi jaurtiketa libre (4)**

Talde bat bi jaurtiketa libre egiteko ematen zaion aukera. Beste taldeak penalizazio horrekin zigortua dagoen falta bat egin duelako sortzen da aukera hori.

**es** dos tiros libres

**fr** deux lancers francs

**en** two free throws

144

**bi puntuko jaurtiketa (4)**

Jokalekuaren aurrealdean, 6,75 m-ko marraren eta hondoko marraren arteko eremutik egiten den jaurtiketa, bi puntu balio dituena.

**es** lanzamiento de dos puntos; tiro de dos

**fr** tir à deux points

**en** two-point basket

145

**bikoitzak (4)**

Sin. bi driblineko falta (3)

Jokalari batek egiten duen arau-urratzea; baloia aldi berean bi eskuekin punpatzen dueneau gertatzen da edo, geratuta egon ondoren, baloia esku-ahurraren gainean pausatua duelarik, berriro driblin egiten jarraitzen dueneau.

**es** dobles

**fr** double drible

**en** discontinue; double dribble; doubles

**biraketa**

Ik. pibotatzet

**biraketa-oin**

Ik. pibotatzeko oin

146

**biren arteko jauzi (4)**

Bi aurkari aurrez aurre jarri eta arbitroak, jokalekuo edozein zirkulutan, baloia airera botaz egiten den sakea. Borraka izan denean, edo partida hasterakoan, edo aparteko gertaera bat izan denean aplikatzen da, oro har, eta jauzi egiten duten jokalarietako bakoitza baloia bere taldearentzat ukitzen saiatu behar du. OHARRA: Zenbait maila eta txapelketatan ez da biren arteko jauzirik egiten; epaileek baloia talde bati ematen diote lehendabizi, eta beste

taldeari hurrena, txandaka, alboko sakea egin dezaten.

**es** salto entre dos

**fr** entre-deux

**en** jump ball

147

**birrindu (4)**

Baloia saskian indarrez sartu, goitik beherako mugimendu bortitz bat egin da.

**es** hacer un mate; hundir; machacar

**fr** smasher

**en** dunk; jam; stuff

148

**bizkar-pase (4)**

Pase-egileen atzean dagoen taldekide bati gorputz-enborra makurtuz eta besoa jiratuz egindako pasea.

**es** pase por la espalda

**fr** passe dans le dos; passe dorsale

**en** around-the-back pass; behind-the-back pass

149

**bizkarra bilatze (4)**

Baloirik gabeko erasotzaile batek saskira bidean bere zuzeneko aurkaria bizkarraldetik gaindituz egiten duen erasoko jokaldia.

**es** puerta atrás

**fr** percée derrière le défenseur

**en** back door; backdoor play

150

**blokeatu (4)**

Blokeo bat egin.

**es** bloquear

**fr** bloquer

**en** block

**blokeatze**

Ik. blokeo

151

**blokeo (4)**

Sin. blokeatze (4)

Baloairekin edo baloirik gabe dagoen aurkari bati traba egin eta aurrera joaten ez uztea, gorputzarekin edo besoekin ukituz.

**es** bloqueo

**fr** blocage

**en** block

152

**blokeo bertikal (4)**

Alboko marrarekiko paralelo egiten den blokeoa.

**es** bloqueo vertical

**fr** écran vertical

153

**blokeo diagonal (4)**

Jokalekuaren marrekin diagonala den blokeoa.

**es** bloqueo diagonal

**fr** écran diagonal

**en** diagonal screen

154

**blokeo horizontal (4)**

Jokalekuaren hondoko marrarekiko paralelo egiten den blokeoa.

**es** bloqueo horizontal

**fr** écran horizontal

155

**blokeo itsu (4)**

Blokeatua izango den jokalariak blokeatzera datorkion aurkaria ikusten ez duela egiten den blokeoa.

**es** bloqueo ciego

**fr** écran aveugle

**en** back screen

156

**blokeo zuzen (4)**

Sin. zuzeneko blokeo (4)

Defendatzairen kontrola duen erasotzaileari egiten dion markaketa eragozteko jokalari batek edo gehiagok egiten duten blokeoa.

**es** bloqueo directo

**fr** écran direct

**en** direct screen

157

**body-check (4)**

Jokalari erasotzaile baten ibilbidea blokeatzeko mugimendua, ibilbide hori desbideratzeko helburuarekin egiten dena. Ikus flash.

**es** body-check

**fr** body-check

**en** body-check

158

**borroka (4)**

Sin. baloi atxiki (3)

Bi jokalariren arteko lehian biak batera baloiari heldu eta inork utzi nahi ezik gertatzea. Arbitroak jokoa eten era, falta pertsonalik ez dela izan iruditzen bazaio, bi jokalarien arteko jauzia agindu dezake.

**es** lucha; balón retenido

**fr** ballon tenu

**en** held ball; tie ball

159

**bosgarren falta (4)**

Talde batek egindako falten zenbakan, joko-denbora bakoitzeo bosgarrena. Hortik aurrera, eta denbora hori bukatu bitartean, bi jaurtiketa librerekkin zigortuko da talde hori, falta egiten duen bakoitzean.

**es** quinta falta

**fr** cinquième faute

**en** fifth foul

160

**bosgarren falta pertsonal (4)**

